



EBAZPENA, 2021eko irailaren 24koa, Hezkuntzako Sailburuordearena, ikastetxe publikoetako ikasleei ordenagailu eramangarriak maileguan emateko prozedura ezartzen duena.

Hezkuntza Sailak, Digitalizazio Plana bultzatu ahal izateko, ikasleek irakaskuntzarako ordenagailu eramangarri egokia izatea eskatzen du, bai gelan, bai etxean. Programaren aplikazio-eremuan sartzen dira ikastetxe publikoetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

#### 1. Artikulua.- Xedea

Ebazpen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan ordenagailu eramangarriak maileguan hartzeko prozedura arautzea.

#### 2. Artikulua.- Helburua

Maileguaren helburua ikasleei baliabide materialak ematea da, ikastetxe publikoen irakaskuntzan eraldaketa digitala ahalbidetzeko. Maileguaren xede den ondasuna ezin izango da erabili hezkuntza-esparrutik kanpoko beste jarduera batzuetarako.

Ikastetxeak ez daude gailuak mailegatzeko proiektu honetan parte hartzera behartuta. Hala ere, proiektuan parte hartzeko, agindu honetako artikulua bete behar dira, hautatutako gailuak barne, bai eta horiek kudeatzeko ezarri den segurtasunaren kudeaketa ere.

Mailegu-zerbitzua Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzak gainbegiratu eta koordinatuko du.

#### 3. Artikulua. – Hartzaileak

Ordenagailu eramangarrien hartzaileak ikastetxe publikoetan eskolatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak izango dira.

#### 4. Artikulua.- Esleitzea, eta ikasleek gailua jasotzea.

Ordenagailu eramangarri bakoitza ikastetxean matrikulatutako ikasle jakin bakoitzeko izendatzen da. Proiektuaren inbentarioan etiketa eta serie-zenbaki bakoitza izen eta abizen jakin bakarrari esleituta dago. Ikasle baten ordenagailua ezin zaio beste ikasle bati utzi. Ikaslea ikastetxean matrikulatuta egoteari uzten



badio, ordenagailu eramangarria kenduko zaio beste ikasle bati esleitzeko. Prozedura hau erabat automatikoa da. Horregatik, ikasle bakoitzak aurrez esleitu zaion ordenagailua jaso behar du.

Legezko tutoreek agindu honen I. eranskina sinatu behar dute eramangarria jaso aurretik. Sinatzeak ebazpen honetan ezarritako baldintzak onartzea dakar.

#### 5. Artikulua.- Esleitutako ordenagailu eramangarrien ezaugarriak:

Windows edo Chromebook ordenagailu eramangarriekin hornituko dira, lau urte baino gutxiagokoak. Bai sistema eragilearen, bai behar beste software lizentzia izango dituzte, ikasgelan eta ikasleen etxeetan behar bezala funtzionatzeko.

Gailuak ikastetxeko WIFI sarera konektatu ahal izango dira, gelan erabiltzeko. Sare horren bidez konektatzen direnean, nabigazioa segurua izango da.

Urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak, Administrazio Elektronikoen eremuan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duenak, 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehenetsitako segurtasun-printzipioa beteko da. Beraz, modu zentralizatuan kudeatutako gailuak, erabiltzaileak eta sarbideak izango dira.

#### 6. Artikulua.- Titulartasuna eta itzulketa

Ordenagailu eramangarria, kargagailua eta garraio-poltsa Sailaren Digitalizazio Planean aurrera egiteko banatzen dira.

Gailuak ez dira inola ere jasotzen dituzten familien jabetzakoak izango. Familiek itzuli egin beharko dituzte honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

- Ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko mailetan ikasteari uzten dio.
- Ikaslea ikastetxetz aldatzen da.
- Ikaslearen hezkuntza-maila aldatu da, eta maila berrian, ikastetxeak beste gailu mota bat erabiltzen du.
- Ikastetxeak edo Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzak gailua itzultzeko eskatzen dute.

Gailua garbi eta pertsonalizaziorik gabe itzuliko da: eranskailurik gabe eta Saitetik kanpoko etiketarik gabe. Gailuarekin batera kargagailua eta garraio-poltsa ere itzuli behar dira.

Itzulketa erregistratzeko, II. eranskineko inprimakia erabiliko da.

#### 7. Artikulua.- Familien betebeharrak



Ikasle bakoitzak ekipo transferiezin bat izango du esleituta, bere kargagailuarekin eta garraio-poltsarekin. Arretaz zaindu beharko ditu. Ikastetxeari itzuliko dizkio seigarren artikuluan ezarritako itzulketara-arrazoietako bat gertatzen denean.

Ordenagailuan arazoren bat atzemanaz gero, ikastetxeak izendatu duen pertsonarekin jarriko dira harremanetan.

Gailua egunero eraman behar da ikastetxera, erabat kargatuta, eskola-egun osoan erabili ahal izateko.

Ikaslearen betebeharra da ekipamendua, kargagailua eta garraio-poltsa garbi edukitzea. Ordenagailuaren etiketak ere errespetatu beharko ditu, eta uneoro ikusgai eduki.

Ikasleak ordenagailua utzi dion ikastetxera joateari utziko badio (ikastetxez aldatzean, hezkuntza-etapa amaitzean, bizilekua aldatzean, etab.), edo ikastetxeak ordenagailu eramangarria itzultzea eskatzen badu, familiak ordenagailu eramangarria ikastetxean entregatuko du, haren jarraibideak betez.

#### 8. Artikulua.- Gailuaren erabilera zuzena

Ordenagailu bakoitza identifikatuta dago eta ikasle jakin bakoitzari esleituko zaio. Familiak uneoro jakin behar du gailua nun dagoen.

Janari eta edarietatik urrun egon behar da. Kontuz ibili behar da ordenagailuaren portuak eta konektoreak erabiltzean. Pantaila ere bereziki zaindu behar da, marratzea saihestuz:

- Ez da ezer utzi behar teklatuaren gainean; pantaila hautsi egin daiteke eramangarria ixtean.
- Ez da disolbatzailerik erabili behar pantaila garbitzeko.
- Ez heldu ordenagailua pantailatik tiraka.

Aireztapen-sareta ez da inoiz oztopatu behar martxan dagoenean. Ordenagailua behar bezala babestu beharko da etxearen eta ikastetxearen arteko garraioan.

Irakasleek edo ikastetxeko informatika-arduradunak eskatutakoez bestelako programarik ez da instalatuko. Ordenagailu eramangarria hezkuntza-helburuetarako bakarrik erabili ahal izango da. Hori dela eta, zerbitzu batzuk blokeatuta dituzte.

Sailak "gailu digitalen erabileratik eratorritako arriskuak saihesteko prebentzio-neurriak" argitaratu ditu IKASGUNEA familientzako atarian. Komenigarria da ikasleek neurri horiek kontuan hartzea, osasuna babesteko.

#### 9. Artikulua.- Intzidentziak



Ordenagailua, kargagailua edo garraio-poltsa gaizki erabiltzeagatik edo behar ez bezala manipulatzegatik hondatzen badira, bai eta istripuagatik, kolpeengatik, erorikoengatik, zapaltzeagatik, likidoak edo janaria isurtzeagatik ere, ikaslearen tutoreek konpondu beharko dituzte.

Honako kasu hauetan, tutoreek ordaindu beharko dute zenbatekoa, intzidentziaren datako hondar-baliora iritsi arte:

- Gailuari, garraio-poltsari edo kargagailuari egindako kaltea konponezina bada.
- Maileguan utzitako elementuren bat galtzen bada.
- Ebasketa batengatik galtzen bada.

Lapurreta-kasuak, dagokion salaketaren bidez ikastetxean egiaztatu beharko dira. Salaketarik ez badago, ebasketatzat joko da, eta tutoreek hartu beharko dute galdutako gailuaren birjartzearen ardura.

Nolanahi ere, Sailak beretzat gordetzen du ondasun publikoen kalte edo galerengatik lege-akzioak abiarazteko eskubidea.

Aurrekoetz bestelako arrazoiengatik zerbait gaizki funtzionatuz gero, ikaslea edo tutoreak ikastetxeko arduradunarekin harremanetan jarriko dira, parte eman eta konpondu ahal izateko.

#### 10. Artikulua.- Ikuskapena

Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritzak gainbegiratuko du mailegu-zerbitzua. Zuzendaritza horrek gailua berreskuratu ahal izango du erabilera txarren aurrean, bai hardwareari, baita ere softwareari dagokionez.

Begoña Pedrosa Lobato

Viceconsejera de Educación